




IDAZLEA: ARITZ GORROTXATEGI
MARRAZKILARIA: AINHOA JAUREGI

ZABARRE



© Egilea: Aritz Gorrotxategi
© Marrazkiak: Ainhoa Jauregi
© Edizioa: Lezoko Udala
Inprimaketa: Gupost S.A.U
Lege Gordailua: SS-749-2013

LAGUNTZAILEA



Lezoko Unibertsitateko Udala

ZABARRE

EUSKAL PIRATAREN KONDAIRA



IDAZLEA: ARITZ CORROTXATEGI

MARRAZKILARIA: ANHOA JAUREGI



abarretarren Joxe gaztea Lezoko kaian zegoen, aita itsasotik itzuliko zain. Inguruan zebiltzan antxetak harrika usatzen ari zen, denbora-pasa. Joxek biziki atsegin zuen aitak etorri berritan buruan egiten zion laztana. Haren esku zailduak arrain eta soka usaina izaten zuten nahasian.

Nekatuta iritsi arren, aitak irribarretsu hartzen zuen semea. Aitarekin batera zetozen gainerako arrantzaleak ere akituta zetozen. Gizon zailduak ziren, isilak, lanari lotuak. Joxek haiek bezalakoa izan nahi zuen.

Lehorrean pasatzen zituzten boladetan Kai-alde tabernan elkartzen ziren itsasgizonak, eta berriketan aritzen ziren itsasoko kontuez. Amak abisu ematen zion Joxeri, "segi aitaren bila, bazkaltzeko ordua da eta". Joxe tabernara joaten zen, baina itsasgizonei entzuten geratzen zen. Bere aita Joanotek Lezoko zirrikituak bezain ongi ezagutzen zituen euskal kostaldeko urak. Baleei buruz aritzen ziren, itsaslapurrei buruz, han-hemenka entzundako abenturei buruz, itota hildako lagunei buruz, gehiegitan bizi zuten miseri gorriari buruz, itsasoaren gazi-gozoei buruz...

Orduko Lezoar itsasgizonentzat ez zen gozoa itsasoko bizitza. Herriko ontziolaren eta balea-ehizaren gainbehera nabaria zen. Mundua aldatzen ari zen, eta gero eta baliabide gutxiago zituzten bizimodua aurrera ateratzeko. Hori gutxi balitz, asko ez ziren onik itzultzen Ternuarako bidaiatik. Garai hartako bizimodu gogorrak bultzatuta, merkatalontziak erasotzen zituzten, dirua eta ondasunak eskuratzearren. Ondasun horiekin urte hartako Ternuarako bidaiak sailhestea lortzen zuten.

Joxeren aita ezaguna zen jarduera horiengatik. Arrantza trebea bakarrik ez, itsaslapur artetsua ere bazen. Gainera, Lezoko itsaslapurren artean ohitura zenez, harrapakinen zati handi bat herriari banatzen zioten. Harrapakinak zirela eta, Lezoko itsasgizonek arazoak izaten zituzten sarritan legearekin. Garai hartan, Lezo Hondarribiaren jurisdikziopean zegoen, eta istiluen ondorioz norbait atxilotzen bazuten, Hondarribiko agintariei zegokien epaia ematea.





Joxe gazteak piraten mundu harekin egiten zuen amets. Ordurako, ederki moldatzen zen batelarekin. Batzuetan, lagunekin joaten zen Puntaleko iturrira, ur bila eta jolasean aritzera. Egurrezko ezpatekin borrokatzen zuten, pirata beldurgarriak zirelakoan. Ontzigintzako lanak ikustera ere joaten ziren noiz edo noiz. Seko harrituta geratzen ziren itsasontzien hezurdura erraldoiekin. Baleen hezurdurek itxura hura zutela entzuna zioten sarritan balea-ehizan ibilitako Miguelenari. Haren ahotik entzunak zituzten baleazaleei buruzko hamaika istorio. Joxeri, ordea, baleak ez zitzaizkion hainbeste interesatzen; berak pirata izan nahi zuen, aitaren moduan. Halaxe joaten zitzaion eguna Joxeri, erdia lanean eta beste erdia jolasean eta ametsetan.



Amak kargu hartzen zion ontziolara joaten bazen, etxetik urrun samar baitzegoen. Errietaren ostean, semea besarkatzen zuen. Amaren behatzek ere bazuten usain berezi bat, artilearena eta sokarena nahasian, josten ematen baitzuen egunaren zati handi bat. Itsasora begira ere geratzen zen tarteka, batez ere ekaitzak jotzen zuenean, senarraz arduratuta. Amaren laztana bestelakoa zen halakoetan, dardaratiagoa. Joxe amaren altzora joaten zen, itsasoari begiratzera bera ere.





Tximistak zeruaren behatzak zirela irudikatzen zuen, itsasontziak harrapatu nahian. Joxek lo urduria izaten zuen gau ekaiztsuetan.

Egun batean, zorigaitza ate joka etorri zen Zabarretarren etxera. Aitaren itsasontziak, Atarrabi izenekoak, hondoa jo zuen ekaitz baten erruz Ziburu aldean. Inor ez zen bizirik atera. Herrian berehala zabaldu zen albistea, eta albistearekin batera, mina eta dolua. Joxek ez zuen sinetsi nahi aita gehiago ikusiko ez zuenik. Joanot ez zegoen hila, aspaldi hondoratutako galeoi baten sabelean gordeta zegoen altxor baten bila abiatua zen, besterik ez.

Familia aurrera ateratzeko, amak joste lan gehiago hartu zituen bere gain. Hala ere, Joxek lagundu egin nahi zuen. Askotan esaten zion amari itsasora irtengo zela. Amak, ordea, ez zuen halakorik nahi, beldur baitzen aitari gertatutakoa ez ote zen errepikatuko. Ez zuen semea ere galdu nahi. Alabaina, nekez lortzen zuten egunero jateko adina. Eta Joxe temati zebilen, joan nahi zuela eta joan nahi zuela. Zabarretarren lagun arrantzale batek lana eskaini zion gaztetxoari bere ontzian. Amak ez zuen hura onartu beste erremediorik: aitaren kasta berekoa zen semea ere.

Horrela murgildu zen Joxe itsasoko bizitzan. Bere artean pentsatzen zuen zeruko behatzek ez zutela harrapatuko; arrisku guztiei ihes egingo ziela, pirata handia izango zela aitaren omenez, eta irabazitakoa zergek itota bizi ziren herritarren artean banatuko zuela, miseriak itota bizi ez zitezen.



Urteak joan urteak etorri, Joxe gizondu egin zen. Arrantza-ontzietan trebatu eta zaildu ostean, merkatalontziak erasotzeari lotu zitzaion. Hasieran, Arpide kapitainaren esanetara; gero, Irazezabalen lehen ofizial gisa; eta, azkenik, bere itsasontzi propioaren kapitain, Beltza izenekoan. Haren mastan gailen, Zabarretarren bandera beltz eta zuria bi banda luzetan, eta honen erdian zortziburu gorria. Huraxe zen bere bereizgarria. Gainera, Zabarrerren ontzian ez zen falta Lezoko eskifaikiderik, gizon zein emakume: Aurkenerena pilotua, Zurutuza, Salaberria, Susperregi, Legorburu, Altamirako Mugarza, Elorriaga, Iturain... Zabarrerekin bazeuden, seinale ausartak zirela.

Denborarekin, Zabarre euskal itsasoetako itsaslapurrik ospetsuena bihurtu zen, eta ez bakarrik euskal itsasoetakoa. Izan ere, parean egokitzen zitzaizkion atzerriko merkatalontziak eta pirata-ontziak ere erasotzen zituen, tartean Holandako eta La Rochelleko asko. Haren izena ahotik ahora zebilen Kantauri aldeko kaietan, eta ez bakarrik hangoetan; Rotterdam, Hanburgo eta Saint-Maloko portuetan ere ezagun zuten haren izena. Merkatalontzietako bidaiariak aitarenka hasten ziren haren izena aipatze hutsarekin. Zabarrerri buruzko zurrumurruak ugariak eta era askotarikoak ziren: batzuk ziotenez, Long John pirata handiaren altxorra bereganatua zuen; beste batzuen ustez, gai zen itsaslaminen kantutik onik ateratzeko; eta baziren ikusezin bihur zitekeela uste zutenak ere. Zabarre harro zegoen bere ospearekin; gainera, oraindik ez zuten zeruko behatzek harrapatu, eta harrapaezin sentitzen zen.

Harrapakinetatik lortutako dirua Lezora bidaltzen zuen bere konfiantzako eskifaikideen bidez. Eskifaikide horiek gauez sartzen ziren herrian, eta lezoarren artean banatzen zuten dirua agintariak oharu gabe. Hala ere, Lazon gaskoiaren azken ondorengoa zen Perutxo Lazonek espiak zituen bere zerbitzura. Hari zegokion Lezoko agintaritza, eta herritarrek eskasia gorrian bizi baziren ere, ez zuen haiekiko erruki izpirik erakusten. Zergak ordaintzen ez zituenari bizkarra gorritzen zion zartailuarekin. Zabarrek banatutako diruari esker, ordea, bazuten jatekoa ordaintzeko. Herritarren bihotzean biziki maitatua zen Lezoko itsaslapur famatua.



Urte luzez olatutik olatura, kostaldetik kostaldera ibili ondoren, orain atzerriko piratekin borrokan, orain merkatalontziak lapurtzen, herri minak jota, Zabarrek Lezora itzultzea erabaki zuen. Herri minaz gain, ama ikusteko irrikatzen zegoen. Beltzaren branka Lezorantz zuzendu ostean, eguraldi ona lagun, aste gutxiren buruan, sorterrian zen berriro ere. Herriko ontzigintza atzean utzi eta Puntalerantz zihoazela, txikitako oroitzapenak berriro zitzaizkion: iturria, pirata jolasak, orduko bihurrikeriak, apaizaren errietak... Lezoko kaira iristeko gutxi falta zenean, Zabarrek ezustekoa hartu zuen: Zabarretarren jauregian ez zen leinuko bandera ageri, eta leihoak itxita zeuden.

Kaira iristean lezoar gutxi batzuk ari ziren lanean, batzuk sareak josten, besteak arrainak kaxetan gordetzen. Bizpahiru emakume txalupari ere bazeuden, bisitariren bat etorriko zain. Hala ere, ohi baino jende gutxiago zebilen inguruan. Zabarrek txanpon batzuk eman zizkien arrantzaleei, "Zabarrerren itzulera ospatzeko". Arrantzaleen aurpegian poza sumatzen bazen ere, kezkak iluntzen zuen haien gogo. Burumakur zeuden. "Katuak jan al dizue mingaina, ala?", Zabarrek umoretsu. Arrantzaleek isilik jarraitu zuten. Bati hitz batzuk eskapatu zitzaizkion: "zure ama..." Zabarrek, esaldiaren amaiera entzuteko betarik hartu gabe, etxerako malda igo zuen, susmo txar bat buruan jiraka. Etxeko atean agiri bat ikusi zuen, Perutxo Lazonek sinatua. Agirian esaten zenez, erret legeak urratzeagatik preso hartua izan zen Joxeren ama. Ondorioz, etxea itxia zegoen. Ama, berriz, kartzelan.

Zabarrek udaletxerako bidea hartu zuen eskifaikide batzuekin batera. Kalean ez zebilen inor, herri mamu bat zirudien. Biztanle gehienak etxean gordeta zeuden, begiak egurrezko kontraleihoen zirrikitueta lapa eginda. Gurutze Santura heldu baino lehen, soldaduak atera zitzaizkien bidera, Erregeren izenean gelditzeko esanez. Zabarre eta bere lagunak borrokan hasi ziren soldaduekin. Ezpaten hotsa nagusitu zen kaleez. Soldaduek ilarari eusten zioten; itsaslapurrak, berriz, ilara hura hausteko lanean hasi ziren. Ahots batek gelditzeko agindu zien, irmo agindu ere. Perutxo Lazon zen. Hari begira geratu ziren denak.









—Azkenean elkar ezagutzen dugu, Zabarre....

—Non dago nire ama?

—Dagokion lekuan: kartzelako azulejuak zenbatzen. Hala gertatzen zaie itsaslapurrei eta euren kolaboratzaileei.

—Ez ezazu nire ama nahastu.

—Zeuk nahastu duzu.

Zabarrek ezpata jaso zuen. Soldaduek ere eurena goratu zuten.

—Garaiz zatoz. Bihar bertan jasoko du eskarmentua plaza nagusian.

—Putre halakoa!

—Gonbidatuta zaude.

Zabarrek hortzak estutu zituen, amorruz.

—Baina..., ziur ez zarela etorriko. Koldar hutsa zara.

Zabarrek berriro goratu zuen ezpata. Perutxok ere berea atera zuen. Ezpata kolpe batzuk jo zituzten, elkarren indarrak neurtuz. Gero, soldaduak eta piratak sartu ziren tartean.

Zabarrek atzera egiteko agindua eman zien bere lagunei. "Itsasontzira". Plan bat pentsatu behar zuen bere ama kartzelatik ateratzeko. Denbora irabazi behar zuen.

—Ikusten? Koldar hutsa zara—Perutxok, irri maleziatsuz.

—Bihar ikusiko dugu elkar. Zin dagit.

Zabarre kaira iritsi zen bere marinelekin. Beltzara igo eta Lezotik milia batzuk urrundu ziren. Arrantzaleak ontzia nola aldentzen zen begira geratu ziren. Gero, lanean jarraitu zuten, kantuan, lehen ez bezala.

Hurrengo arratsaldean, aurreko egunean ez bezala, herriko plaza lepo zegoen. Ikusmin handia sortu zuen lezoarrengan Zabarrerren itzulerak. Kaleak soldaduz josiak zeuden, herriko sarbideak ondo zainduak. Perutxok tentu handiz prestatua zuen bere tranpa. Martin semea eraman zuen berarekin, piratei zer gertatzen zitzaien ikas zezan. "Biharko egunean zuri egokituko zaizu haiek kate motzean lotzea", esan zion semeari. Honek, ordea, Zabarre miresten zuen, aitari esatera ausartzen ez bazen ere. Martinek hamalau urte zituen, eta Lezon bizi zen lehengusu baten etxean. Herriko neska-mutilek errezeloz begiratzen zioten, Lazon agintariaren semea zelako. Baina bazituen lagun leialak ere, haren jatorriari jaramonik egiten ez ziotenak. Lagun haien bidez bazekien herrian goseak akabatzen zeudela, eta irtenbide bat nahi zutela. Bere aita zorrotzegia zela zioten, ez zuela bihotzik. Martinek ez zekien zer egin. Batetik, aita maite zuen, baina, bestetik, ezin zuen jasan herritarrek sufritzen ikustea, eta Zabarrerren eskuzabaltasuna eta ausardia estimatzen zituen.

Seiak aldean, Zabarrerren ama, Anttoni, atera zuten kartzelatik soldaduek. Eskuak lotuta zihoan, burumakur, ahulduta. Zutoin bati lotu zuten. Herritarrek errukiz begiratu zuten emakumea, baina inor ez zen soldaduei aurre egitera ausartzen. Perutxo Anttoniren ondoan jarri zen. Anttonik ura eskatu zion, ahots ahulez.

—Ezta pentsatu ere. Ez duzu ur tantarik merezi—erantzun zion Perutxok hoztasunez.

Martin ordea, errukitu egin zen Anttoniz. Pitxar bat urez bete eta emakumeari eman zion.

—Zertan ari zara?!—galdetu zion aitak, harrituta.

—Ura behar du. Ez zaitetz hain bihozgogorra izan aita.

Anttonik eskerrak eman zizkion eta pitxarretik edan zuen.

—Ai, zu ere amaren ezpal berekoa atera zara: bigunxea. Espabilatuko zara. Ez fidatu lapur hauekin.

—Ez dute ezer txarrik egin. Goseak amorratzen daude.

—Utz ditzagun berriketak gerorako.

Perutxok plazara ematen zuten kaleetan jarri zuen arreta.

—Ez dut Zabarre ikusten... Banengoen, ba, koldar hutsa zela.

Soldaduak ere hona hara begira ari ziren, piraten etorrera zaintzen.

Jendea ere ezker eskuin hasi zen begira, jakin minez eta adi.

Piraten arrastorik ez.

—Koitadua... Semea ez da zu salbatzera etorriko—esan zion
burla-airez Perutxok Anttoniri.

Emakumeak agintariarengan iltzatu zituen begiak. Ttu egin zuen lurrera,
amorruez.

—Haren hankazpira ere ez zara iristen! Txitxarro betoker
halakoa!

—Neurtu hitz horiek.

—Etortzen denean...

Anttonik ezin izan zuen esaldia amaitu, eztulka hasi baitzen. Kartzelako
egonaldiak nabarmen ahuldu zuen bere osasuna.

—Eta non dago? —Perutxok desafioz—. Ez dut ikusten.

Jendartean oihu batzuk entzun ziren: “gora Zabarre!”. Oihuak
biderkatu egin ziren. Lezoarrak Zabarrerri deika ari ziren,
Anttoniren jarrerak adoretuta.

—Ixo!—marru egin zuen Perutxok.

Gero, soldaduei zuzendu zitzaien.

—Erne ibili.





Soldaduak jendartean nahastu ziren, Zabarrereren bila. Jendartetik Zabarrereren eskifaikideak aurreratu ziren, soldaduak itzuriz. Zabarre bera jarri zen bere itsasgizonen buru, eta zutoineraino heldu zen.

—Hemen nauzu, olagarro garro bakarra!

—Seme...

—Ama...!

Zabarre amaren ondora iritsi zen.

—Bai hunkigarria—txalo egin zuen Perutxok, burlaka—. Neu ere negarrez hasiko naiz.

—Putre zikina! —Zabarrek mehatxu.

—Gertu, soldaduak!—abisua eman zuen Perutxok.

Soldaduak zutoineraino inguratu ziren. Bat batean, teilatuetatik soka batzuk irristarazi zituen norbaitek. Soketatik Zabarrerren itsaslapurrak jaisten hasi ziren, armiarmak bezala. Soldaduak nahastuta geratu ziren une batez, nora jo ez zekitela. Soketatik jaitsi ziren itsaslapurrek bidea itxi zieten soldaduei. Ezpata-talkan hasi ziren batzuk eta besteak. Herritarrek "Gora Zabarre"ka hartu zuten itsaslapurren agerraldia.

Zutoina zaintzen zuten soldaduak Zabarrerren piratekin hasi ziren baita ere borrokan. Perutxo eta Zabarre aurrez aurre geratu ziren.

—Kita ditzagun gure kontuak—desafioa egin zion Zabarrek.

—Plazer handiz.

Perutxo semeari zuzendu zitzaion.

—Begira nola garbitzen dudan zorri hau.

Perutxok eta Zabarrek ezpatak dantzarazi zituzten, eta euren altzairuei txinpartak aterarazi zizkieten. Ama ikaratuta zegoen, semea zaurituko zuten beldur. Herriak oihuka jarraitzen zuen, piraten alde. Perutxoren ezpata kolpe batzuk bularretik gertu izan zituen Lezoko piratak, baina abileziaz saihestu zituen, eta erasora pasatu zen. Mugimendu azkar batez, Perutxo desorekatzea lortu zuen ia, eta agintariak lanak izan zituen oreka berreskuratzeko. Ordurako Zabarrerren itsaslapurrek menpean zituzten soldaduak. Hauek ere errenditu egin ziren. Une hartan, Martin sartu zen bien tartean.

—Nahikoa da. Utzi armak, baduzue-eta adiskidetzeko garaia.

—Baina Martin... Pirata zikin bat da.

—Zabarrek jendeari laguntzen dio. Berak lortutako diruarekin jatekoa erosten dute.

- Diru hori jende zintzoari lapurtutakoa da.
- Zuk ere ez al diezu herritarrei lapurtzen? Daukaten guztia kentzen diezu, eta ezer gabe uzten.
- Ez dut ulertzen...
- Neuk ere ez. Nire herriko lagunak goseak hiltzen ari dira. Zertarako behar duzu hainbeste diru?
- Arrazoi nuen. Amaren kastakoa atera zara.
- Egizu harengatik, asko maite zituen lezoarrak. Askatu atxilotuak eta itzuli soberan dagoen dirua herriari.
- Txipiroiaren biboteak! Ezpal onekoa, mutikoa—Zabarrek, tartean sartuz.
- Ezin dut hori egin.
- Festetan gaude, aita. Egizu nigatik... Ez ditut lagunak erratza makila bezain argalak ikusi nahi.

Perutxo semeari begira geratu zen, biguntzen hasia.

- Mesedez, aita. Indarkeriarekin ez duzu ezer lortuko. Besteen lekuan jarri behar duzu.

Perutxo Zabarrerri zuzendu zitzaion.

- Zin egiten didazu hemen zaudeten bitartean ez duzuela okerkeriarik egingo?
- Nire hitza duzu. Asmo onez etorri gara, jaiak ospatzera eta lagunak besarkatzera.

Perutxok lurrera erortzen utzi zuen espata. Martini begiratu zion hurrena.

- Ondo da. Zure amagatik egingo dut, harekiko errespetuz. Jaiak bukatu arte tratua egingo dugu. Gero gerokoak.

Herri osoak bibaka eta txaloka erantzun zuen. Zabarrek bostekoa luzatu zion Perutxori.



—Lagunak?

—Konforme.

Bostekoa eman zioten elkarri.

—Banatu txanpon batzuk herritarrei—esan zion Martinek.

—Ados —Perutxo soldaduei zuzendu zitzaien—. Atera presoak ziegatik eta ekarri kutzako dirua.

Soldaduek agintariaren esana bete zuten. Laster itzuli ziren presoekin eta diruarekin. Presoak aske utzi zituen Perutxok, jaiak ospa zitzaizen. Dirua, berriz, herritarren artean banatu zuen.

—Etzazuela pentsa zuek uste bezain bihozgabea naizenik. Hemen duzue dirua. Ondo pasatu eta gutxi gastatu. Eta sobratzen bazaizue, ekarri bueltan, izango dugu-eta zertan gastatu.

Herritarrek algaraka hartu zuten Perutxoren ateraldia. Gero, piratekin eta soldaduekin nahastu ziren, eta musikariak kaleak alaitzeari lotu zitzaizkion.

Zabarrek ama besarkatu zuen.

Ondoren, bostekoa eman zion Martini.

—Zuri esker, mutiko.

Biba gazteak!

Martinek irri egin zuen. Sekula ez zuen ahaztu Zabarrerren laztana. Haren esku zailduak arrain eta soka usaina zuten nahasian.





